LEGAZPIKO UDALA

**LEGAZPIKO UDALAREN ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMA**

**SISTEMA DE INTEGRIDAD INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI**

## I. ATARIKOA

Legazpiko Udala udal-antolaketa eraldatzeko prozesu batean dago murgilduta. Antolaketa hori egitura arina, modernoa, gardena eta, batez ere, eraginkorra eta efizientea izatea da helburu. Prozesu horretan, udal erakundearen egitura egokitu zen, organoak eta prozesuak sinplifikatuz, politikarien eta teknikarien arteko interakzio-guneak sortuz eta arloen arteko koordinazioa areagotuz. Horrezaz gain, 2015-2019 epealdirako Legealdi Plana egin eta onartu zen, esparru publikorako planifikazio estrategikoaren baliabide gisa.

Legealdiaren hasieran abiatutako jarduera-ildo hori Erakundearen Zuzentasun Sistemarekin osatzen da, udal kargu publikoen, udal langileen eta legazpiar herritarren artean elkarrekintza eta konfiantza areagotzeko xedearekin.

Gai publikoak kudeatzeko orduan seriotasuna eta ardura erakutsi behar dira eta horrek etika publikoaren eta etengabeko hobekuntzaren aldeko ekintzak gauzatzeko konpromisoa eskatzen du. Hori guztia, bai jokabide moralen esparruan, bai kudeaketa publikoko eskumenak gauzatzeko orduan ere.

Sistema honek funtsezko bi ideia ditu oinarri: alde batetik, hautetsiek gure Udala kudeatzeko lanetan egin behar dutena erantzukizunez, legazpiar herritarren zerbitzura egonez, gardentasunez eta funtzio publikoetara erabat dedikatuz egingo dutela sinistea. Eta bestetik, honako bi kontzeptuak bereiztea: herritarra eta bezeroa. Horrek daraman erantzukizun-dosia da balio erantsia ematen diona.

2017-11-29an Udalbatzarrean BETIKOZ onartuta.

LEGAZPIKO UDALA IDAZKARIA

## I. PREAMBULO

El Ayuntamiento de Legazpi está inmerso en un proceso de transformación de la organización municipal en una estructura ágil, moderna, transparente y, sobre todo, eficaz y eficiente. En este proceso, se adecuó primero la estructura organizativa municipal, simplificando órganos y procesos, creando espacios de interacción entre políticos y técnicos e intensificando la coordinación entre las áreas. Se elaboró y aprobó, además, un Plan de Legislatura 2015-2019, como instrumento de planificación estratégica en el ámbito de lo público.

Esta línea de actuación iniciada al comienzo de la legislatura, se complementa con un Sistema de Integridad Institucional orientado a reforzar la interacción y confianza entre los cargos públicos municipales, los empleados públicos y la propia ciudadanía legazpiarra.

La seriedad y responsabilidad en la conducción de los asuntos públicos exige un compromiso de acción permanente en favor de la ética pública y una vocación de mejora continua. También en el ámbito de las conductas morales, pero igualmente en el ejercicio de las competencias de gestión pública.

Las dos ideas fundamentales en las que se fundamenta este Sistema son, por una parte, la firme creencia de que el papel de los cargos electos en la gestión de nuestro Ayuntamiento debe ser ejercido con sentido de la responsabilidad, voluntad de servicio a la ciudadanía legazpiarra, transparencia y dedicación a sus funciones públicas. Por la otra, la idea de que lo que diferencia el concepto de ciudadanía del de mero cliente; lo que le da valor añadido, es la dosis de responsabilidad que conlleva.

2017-11-29ko Udalbatzarrean
BETIKOZ onartuta.
LEGAZPIKO UDALA IDAZKARIA

Gobernantza etikoak herritarrengan portaera etikoak sustatzen ditu, haien exijentziak betetzen ditu eta bertaraino hedatzen du Erakundearen Zuzentasun Sistema.

Orduan bakarrik osatuko dugu eta benetako edukiaz jantziko dugu Gobernantza hitza. Gainera, oinarrizko balio unibertsal batzuk finkatzeko gai izango gara, udal jardueran esku hartzen duten kolektibo guztiei aplikatuko zaizkienak, udal gobernuari nahiz herritarrei. Horrela, bat egiten dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa eredugarria eraikitzeko azaldu duen asmoarekin, eta Legazpi eredugarria eraikiz gure aletxoa jarri nahi dugu.

Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistema oinarri hartuta, Legazpiko Udalaren Erakundearen Zuzentasun Sistema diseinatzea erabaki da. Bertan sartuko dira ondorengoentzako Kode Etikoak edo jokabide egokien kodeak: gobernu-ardura duten udaleko kargu publikoak, gobernu-ardurarik ez duten hautetsiak, udal enplegatu publikoak, diru-laguntzen hartzaileak eta Udalarentzako lan egiten duten hornitzaile eta kontratistak.

Erakundearen zuzentasuna etengabeko prozesu bat da, non hasierako estandarrak gainditzen joan behar direlarik. Beraz, prozesu bizia da, gizartearen inguruabar aldakorretara egokitzen joan beharko duena, legazpiar herritarrek jasotzen duten zerbitzuen onurarako Legazpiko Udalaren errendimendua hobetuko duen etengabeko ikaskuntza espazioa.

Una gobernanza ética fomenta comportamientos éticos en la ciudadanía, atiende a sus exigencias y permite extender hasta ella el Sistema de Integridad Institucional.

Sólo entonces lo completaremos y dotaremos de verdadero contenido a la palabra Gobernanza. Estaremos, además, capacitados para fijar algunos valores básicos universales, aplicables a todos los colectivos involucrados en la actividad municipal, desde el equipo de gobierno hasta la ciudadanía. Nos sumamos a la iniciativa de la Diputación Foral de Gipuzkoa de construir una Gipuzkoa ejemplar, construyendo como una pequeña base que ayude a sustentarla, una Legazpi ejemplar.

Por todo ello, tomando fundamentalmente como referencia, el Sistema de Integridad Institucional de Diputación Foral de Gipuzkoa se ha adoptado la decisión de diseñar un Sistema de Integridad Institucional del Ayuntamiento de Legazpi en el que se insertarán Códigos éticos o de Conducta para: los cargos públicos municipales con responsabilidades de gobierno, los cargos electos sin responsabilidades de gobierno, los empleados públicos municipales, perceptores de subvenciones y proveedores y contratistas que trabajan para el Ayuntamiento.

La integridad institucional es un proceso de mejora continua en el que deben irse superando los estándares iniciales. Es, por tanto, un proceso vivo que deberá ir adecuándose a las circunstancias cambiantes de la sociedad, como un espacio permanente de aprendizaje que mejore el rendimiento del Ayuntamiento de Legazpi en beneficio de los servicios que recibe la ciudadanía legazpiarra.

2017-11-29ko. Udalbatzarrean
BETIKOE onartuta.
LEGAZPIKO UDALA IDAZKARIA

Legazpiko Udalak, bai ekintza sozialei dagokienean baita gure gizartea gobernatzeko erari dagokionean ere, aldaketa sakon baterantz jo nahi du, herritarrak politika sendo eta komunikatiboa dagoela hauteman dezan, gobernantza onagatik apustu irmoa egiten duen eta konfiantza, itxaropena eta ilusioa sortarazten dion politika. Legazpiko Udala gobernantza onaren eredu bihurtu nahi dugu; hierarkia eta kontrolean oinarritzean baino kooperazioan oinarritzen dena, non protagonismoa prozesuek, kooperazioak eta konfiantzak eskuratzen duten.

Erakundearen Zuzentasun Sistema beharrezko esparrua izango da, Udalaren zuzentasun-politika hura osatzen duten ondorengo kolektibo desberdinetan bultzatzeko: gobernu-ardura duten udaleko kargu publikoak, gobernu-ardurarik ez duten udal ordezkari politikoak, udal enplegatu publikoak, diru-laguntzen hartzaileak eta hornitzaile eta kontratistak.

## II. ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMAREN DEFINIZIOA

Legazpiko Udalaren Erakundearen Zuzentasun Sistema helburu, printzipio eta berme-erakunde batzuen bidez osatuta dago; eta, horrezaz gain, gardentasun, kontu emate eta ebaluazio mekanismoak ere baditu, horien bidez, bere osotasunean, azpiegitura etikoa eraiki eta zuzentasun politika finkatzeko.

## III. ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMAREN HELBURUA

Erakundearen Zuzentasun Sistemaren helburua da zuzentasun kultura garatu eta sustatzea, betiere arduradun eta langile

El Ayuntamiento de Legazpi quiere avanzar hacia un profundo cambio, tanto en la acción social como en las formas de gobierno de nuestra sociedad, de modo que la ciudadanía pueda percibir una política sólida y comunicativa, decidida a apostar firmemente por una nueva gobernanza que le transmita confianza, expectativa e ilusión. Queremos convertir al Ayuntamiento de Legazpi en ejemplo de buena gobernanza; menos basado en jerarquías y control y que apueste por la cooperación; en el que el protagonismo lo adquieran los procesos, la colaboración y la confianza.

Este Sistema de Integridad Institucional conformará el marco necesario para impulsar una política de integridad del Ayuntamiento en los diferentes colectivos que lo conforman: representantes políticos municipales con funciones de gobierno, representantes políticos municipales sin funciones de gobierno, empleados públicos municipales, perceptores de subvenciones y proveedores y contratistas.

## II. DEFINICION DEL SISTEMA DE INTEGRIDAD INSTITUCIONAL

El Sistema de Integridad Institucional del Ayuntamiento de Legazpi se articula a través de un conjunto de objetivos, principios, procedimientos e instituciones de garantía, así como de mecanismos de transparencia, rendición de cuentas y de evaluación, que tienen por objeto asentar una política de integridad y la construcción de una infraestructura ética en su conjunto.

## III. FINALIDAD DEL SISTEMA DE INTEGRIDAD INSTITUCIONAL

La finalidad del Sistema de Integridad Institucional es desarrollar y promover una cultura de integridad en el ejercicio de las

2017-11-29ko Udalbatzarrean
BETIKO Z... onartuta.
LEGAZPIKO UDALA
IDAZKARIA

publiko guztiek eta udal zerbitzu publikoak ematen parte hartzen duten pertsona zein entitate guztiek betetzen dituzten funtzioen barne integratuta. Era horretan, azpiegitura etikoa modu eraginkorrean giltzatuko da, eta herritarren aurrean, Administrazio Publikoaren eta bertako kargu zein langile publikoen zuzentasunari, objektibotasunari, eraginkortasunari, gardentasunari edo inpartzialtasunari kalte egin diezaioketen jardunbide okerrak edo jokabide ezegokiak saihestuko dira, hala erakundearen zilegitasuna babesteko.

funciones públicas por parte de todos los responsables y empleados públicos, así como por aquellas entidades o personas que participen en la provisión de servicios públicos municipales, articulando de modo efectivo una infraestructura ética, así como prevenir las malas prácticas o conductas inadecuadas que puedan afectar a la imagen de integridad, objetividad, eficiencia, transparencia e imparcialidad de la Administración Pública y deslegitimar a esta, así como a sus cargos y servidores públicos, ante la ciudadanía.

Horrezaz gain, udal kargu publiko bakoitzak eta gainerako langileek Kode jakin batzuetara berariazko atxikipena egitea aurreikusi da. Halaber, erakundearen zuzentasun esparru horretako gainerako elementuetara ere atxikiko dira, besteak beste, zuzentasunerako hedapen eta prebentzio sistemetara, eta kontsultak, dilema etikoak, kexak ala salaketak izapidetzeko prozedura zein bideetara.

Se prevé asimismo la adhesión individualizada a determinados Códigos, así como los restantes elementos de ese marco de integridad institucional, tales como los sistemas de difusión y prevención de la integridad, y los procedimientos, canales o cauces para la tramitación de las consultas, dilemas éticos, quejas o denuncias.

## IV. KODE ETIKOAK

Erakundearen Zuzentasun Sistemarako oinarrizko tresnak dira Kode Etikoak. Auto-araudirako dokumentuak dira, eta horien bidez, Legazpiko Udalaren funtzio publikoak zuzenean ala zeharka betetzen dituzten pertsona guztiek bete beharreko balio, printzipio eta jokabide arauak identifikatzen dira.

Kode Etikoak definituko dira Udala osatzen duten kolektiboetako bakoitzerako: gobernu-ardura duten udaleko kargu publikoak, udal ordezkari politikoak, udal enplegatu publikoak, diru-laguntzen hartzaileak eta hornitzaile eta kontratistak; hori guztia haien funtzioen garapenean balio publikoak eta

## IV. CÓDIGOS ÉTICOS

Los Códigos Éticos son la herramienta base del Sistema de Integridad Institucional en su condición de documentos de autorregulación a través de los cuales se lleva a cabo la identificación de los valores, principios y normas de conducta a los que se deberán ajustar todas aquellas personas que ejerzan directa o indirectamente funciones públicas en el Ayuntamiento de Legazpi.

Se definirán Códigos Éticos para cada uno de los colectivos que conforman el Ayuntamiento: representantes políticos municipales con funciones de gobierno, representantes políticos municipales, empleados públicos municipales, perceptores de subvenciones y proveedores y contratistas; todo ello con la finalidad de

2017-11-29ko Udalbatzarrean
BETIKOZ onartuta.
LEGAZPIKO UDALA
IDAZKARIA

azpiegitura etikoa areagotzeko xedearekin.

Hasteko, gobernu-ardura duten udal ordezkari politikoen Etika eta Gobernu Onaren Kodea definitu eta inplementatuko da eta ondoren, gobernu-ardurarik ez duten udal ordezkari politikoen Kode Etikoak definituko dira. Segidan, udal enplegatu publikoen kode etikoak landuko dira.

Modu berean, kontratuak egikaritzean, esleipendunei, emakidadunei eta hornitzaileei balio, printzipio eta jokabide arauak betetzea eskatuko zaie, hala badagokio, betiere dagozkion aldaketekin, baldin eta herritarrei zerbitzu publikoak eskaintzen badizkiete edo ondasun publiko jakin batzuk hornitzen badituzte.

Ildo berean, kontratazio eta diru-laguntza prozeduretan balio zein estandar etiko edo jokabide estandar jakin batzuk betetzea eskatu ahal izango da, eta kontratuaren edo diru-laguntzaren xede den jarduera egitean, horiek errespetatu beharko dira.

## V. BALIO ETIKO UNIBERTSALAK

Udala osatzen duten kolektiboetako bakoitzerako balio etiko zehatz eta espezifikoak definitzeaz gain, aukera izango da horietako batzuk balio unibertsaltzat jotzea, guztion jardunbidea gailendu behar dutelako, herritarrena barne. Horiek guztiak bakoitzaren Kode Etikoan zehaztuko, zabalduko edo modulatuko dira, kolektiboaren arabera.

reforzar los valores públicos y la infraestructura ética en el desarrollo de sus funciones.

Se comenzará con la definición e implementación de un Código Éticos y Principios de Buen Gobierno de los representantes políticos municipales con funciones de gobierno, para continuar con los Códigos Éticos de representantes políticos municipales sin funciones de gobierno. Seguidamente se avanzará en los códigos Éticos de los empleados públicos municipales.

Asimismo, el cumplimiento de los valores, principios y normas de conducta, con las modulaciones que se exijan en cada caso, se podrán extender a través de las pertinentes cláusulas o, en su caso, en la ejecución del contrato a los adjudicatarios, concesionarios y proveedores, siempre que presten servicios públicos a la ciudadanía o provean determinados bienes públicos.

Del mismo modo, en los procedimientos de contratación y de subvenciones se podrá incorporar el cumplimiento de determinados valores y estándares éticos o de conducta que deberán ser respetados en el ejercicio de la actividad contractual o subvencionada.

## V. VALORES ÉTICOS UNIVERSALES

Independientemente de que para cada uno de los colectivos que conforman el Ayuntamiento puedan definirse valores éticos concretos y específicos, es posible definir algunos de ellos como Universales, puesto que deben presidir la actuación de todos ellos, incluida la ciudadanía. Todos ellos serán concretados, ampliados o modulados en su Código Ético, según el colectivo de que se trate.

2017-11-29ko Udalbatzarrean
BETIKOZ onartuta.
LEGAZPIKO UDALA IDAZKARIA

***Zuzentasuna.***

Zuzentasuna bertute bat da. Bertute horrek bidea ematen du egunero behar bezala jokatzeko eta zerbitzu publikoaren printzipioarekin eta berekin bat datozen gainerako printzipioekin (inpartzialtasuna, eraginkortasuna, gardentasuna, legezko-tasuna,….) era koherentean jarduteko.

***Zintzotasuna***

Interes publikoa izango da kargu publiko baten jardunbidearen azken xedea. Ezin da, beraz, udalerriaren interes orokorretatik urrunduko diren interes partikularren alde egin.

***Bizikidetza eta errespetua.***

Udala osatzen duten kolektibo guztiek, beren funtzioak betetzean eta beren jokabide pertsonalaren bidez, bizikidetza, solidaritatea eta tolerantzia oinarri duten gizartea indartuko dute, betiere pertsonen arteko errespetua, aniztasuna eta solidaritatea bultzatuz. Modu berean, edozein pertsonak merezi duen adeitasun, behar den errespetu eta duintasunarekin hartuko dituzte gainerako kolektiboak. Beraz, ez dute jarduera horren aurka doazen jokabideak izango eta ez dute mespretxuzko hitzik erabiliko edota edonolako bereizkeria (genero, sinesmen, ideologia, sexu-orientazio, arraza, ezintasun edo bestelako arrazoiengatikoa) sortzen duten jarrerarik edukiko.

**VI. BANAKAKO ATXIKIPENA**

Jokabide Kodea jakin batera atxikitzean, pertsonak borondate argia erakusten du bertan zehaztutako balio, printzipio eta jokabide arauak betetzeko, bere jokabide eta jarduera balio, printzipio eta arau horien

***Integridad***

La integridad consiste en la virtud que permite actuar cotidianamente, o coadyuvar a la actuación, de forma coherente con el principio del servicio público y con los otros principios congruentes con el mismo, como la imparcialidad, la eficacia, la transparencia, la legalidad, etc.

***Honestidad***

El interés público será el fin último de la actuación de un cargo público. No debe, por tanto, ser influida ni solicitada a favor de intereses particulares alejados del interés general del municipio.

***Convivencia y Respeto.***

Todos los colectivos que conforman el Ayuntamiento fomentarán, a través del ejercicio de sus funciones y de su propia conducta personal, el fortalecimiento de una sociedad en la que prevalezca plenamente la convivencia, la solidaridad y la tolerancia, impulsando el respeto mutuo, el pluralismo y la solidaridad entre las personas. Asimismo, tratarán al resto de colectivos con la cortesía, el debido respeto y la dignidad que toda persona merece. Se abstendrán, por consiguiente, de llevar a cabo conductas que contravengan esa actuación y que conlleven el uso de términos despectivos o de prácticas de discriminación de cualquier tipo (género, creencias, ideológica, orientación sexual, raza, discapacidad o cualquier otra).

**VI. ADHESIÓN INDIVIDUALIZADA**

La adhesión individualizada a un Código de Conducta es un acto en el que la persona muestra la voluntad fehaciente de acatar el contenido de los valores, principios y normas de conducta, con el fin de adecuar su

2017-11-29ko Udalbatzarrean
BETIKOZ onartuta.
LEGAZPIKO UDALA
IDAZKARIA

araberakoa izan dadin, erakundearen irudia eta zuzentasuna babestuta gera dadin eta bere funtzio zein eginbeharrak behar bezala betetzeko.

Legazpiko Udalak kasuan kasu onartuko dituen Jokabide Kodeek banakako atxikipenerako sistemak ezarriko dituzte.

Kasuan kasu, Udalerako lan egiten duten langileentzako onartzen den Kode Etikoak edo Jokabide Kodeak kode deontologiko izaera izango du, eta beraz, langile publikoek derrigorrez bete beharko dute, banakako atxikipenik egin beharrik gabe.

Edonola ere, edozein langile publiko izendatu edo kontratatu baino lehen, aipatutako kodearen ale bat emango zaio, eta hurrengo atalean xedatutakoari jarraiki dagozkion prestakuntza jarduerak egingo dira horren irismen eta ondorioak ezagutu ahal izateko.

**VII. ETIKA BATZORDEA**

Legazpiko Udalak Etika Batzordea izango du. Aipatu batzordea kontsultak, arazoak, dilemak, kexak edo salaketak jasoko dituen eta, kasuan kasu, txosten edo gomendio-idatziaren bidez haiek erantzungo dituen berme organoa izango da.

Etika Batzordearen osaketa desberdina izan daiteke zein Koderi dagokionaren arabera eta Kode horretan zehaztuko da.

Kasua konplexua denean edo doktrina bat edo iritzi orokorra egotea komeni denean, Etika Batzordeak Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko edo EUDELeko batzorde homonimoetara eraman ahal izango ditu kontsulta, arazo, dilema, kexa edo

conducta y actividad a tales valores, principios y reglas, salvaguardando de ese modo la imagen e integridad de la institución y el correcto ejercicio de sus funciones y tareas.

Los Códigos de Conducta que en su caso se aprueben por el Ayuntamiento de Legazpi establecerán sistemas de adhesión individualizada.

El Código Ético o de Conducta que, en su caso, se apruebe para el personal al servicio del Ayuntamiento, tendrá la condición de Código Deontológico y, por consiguiente, de obligado cumplimiento por los empleados públicos, sin requerir acto de adhesión individualizado alguno. En todo caso, previo al nombramiento o contratación de cualquier empleado público se hará entrega de un ejemplar del citado Código y se llevarán a cabo, en los términos expresados en el apartado siguiente, las acciones formativas que procedan para que se pueda conocer exactamente su alcance y consecuencias.

**VII. COMISIÓN ÉTICA**

El Ayuntamiento de Legazpi dispondrá de una Comisión de Ética que será el órgano de garantía que recibirá las consultas, problemas, dilemas, quejas o denuncias, y procederá a dar respuesta a las mismas a través de un informe o recomendación, según los casos.

La composición de esta Comisión Ética será variable en función del Código al que afecte y será en éste donde se concrete.

Si la complejidad del caso o la conveniencia de que exista una doctrina u opinión general lo aconsejaran, la Comisión Ética podrá elevar esas consultas, problemas, dilemas, quejas o denuncias a las comisiones homónimas del Gobierno Vasco, Diputación

2017-11-29ko Udalbatzarrean
BETIKOZ onartuta.
LEGAZPIKO UDALA
IDAZKARIA

salaketa horiek.

Kontsultatu den Batzorde horren iritzia, interpretazioak edo luzatuko dituen proposamenak bere gain har ditzakete dagokion erakundearen gobernu organoek edo haiek ez onartzea erabaki dezakete, behar bezala arrazoitu ondoren eta, betiere, Etika Batzordearen erabakiak hori bermatzen badu.

**VIII. ERAKUNDEAREN ZUZENTASUNAREN HEDAPEN ETA PREBENTZIO SISTEMAK**

Legazpiko Udalak, beharrezkoak izango diren neurriak garatuko ditu, bere aplikazio esparru subjektiboaren mende dauden pertsonek, aipatu Kode Etikoak eta Erakundearen Zuzentasun SIstema ezagutu eta barnera ditzaten.

Erakundearen Zuzentasun Sistema honen baitan aurreikusitako Kode Etikoen helburu nagusia balio etikoetara eta jokabide arauetara egokitzen ez diren jokabideak sortu edo errepika daitezela prebenitzea da, Legazpiko Udalaren azpiegitura etikoa hobetze aldera eta haren ordezkariengan herritarren konfiantza areagotu dadila lortzeko.

Era osagarrian, jokabide eta gobernu onaren kodean jasotako xede eta helburuekin bat ez datozen jardunbideak edo ez-betetzeak antzemanez gero, dokumentu honetan ezarritako berme organoek kode honetan jasotako eskuduntzak erabili ahal izango dituzte erakundearen duintasuna eta

ipuzkoa o EUDEL, para que esta
ırecer por medio de un Informe.

n de la Comisión consultada y sus
ones o propuestas podrán ser
ɔor los órganos de gobierno de la
respondiente o apartarse de ellas
ecomendación motivada siempre
avalada esa decisión por la
Foral de Ge Ética.
emita su pa

Esta opinió
interpretaci
asumidas p
entidad cor
mediante r
que esté
Comisión d

**TEMAS DE DIFUSION Y**
**ON DE LA INTEGRIDAD**
**ONAL**

miento de Legazpi desarrollará
ellas medidas que sean precisas
nseguir un conocimiento e
ón de los Códigos Éticos y el
e Integridad Institucional, entre
ellas personas sometidas a su
jetivo de aplicación.

**VIII. SIS**
**PREVENC**
**INSTITUCI**

d principal de los Códigos Éticos
los en el marco de este Sistema
ad Institucional es la de prevenir la
n o reproducción de conductas no
a los valores éticos y normas de
al efecto de mejorar la
ura ética del Ayuntamiento de
lograr así un reforzamiento de la
iudadana en sus representantes.

El Ayunta
todas aque
para con
interiorizaci
Sistema d
todas aqu
ámbito sub

La finalidac
contemplac
de Integrid
emergencia
ajustadas a
conducta,
infraestruct
Legazpi y
confianza c

nente, en caso de detectar
entos o actuaciones divergentes
lidad y objetivos del código de
buen gobierno, los órganos de
establecidos en el presente
podrán hacer uso de las
s que se recogen en este código,
ensión de restaurar la dignidad y
e la institución.

Accesorian
incumplimie
de la fina
conducta y
garantía
documento
atribucione

2017-11-29ko Udalbatzarrean
BETEKO Z. onartuta.
LEGAZPIKO UDALA IDAZKARIA

## IX. BIDEAK ETA PROZEDURAK ZEHAZTEA

Legazpiko Udalak, Erakundearen Zuzentasun Sistema honetan ezarritako balio, printzipio eta jokabide arauei dagokienez, lehen fase batean kontsultak, arazoak eta dilemak eta bigarren fase batean kexak edo salaketak izapidetzeko komunikazio-bideak ezarriko ditu.

Ahal dela, prozedura edo bide horiek bitarteko elektroniko bidez bideratuko dira, beste bideei kalterik egin gabe.

Etika Batzordeak emango dituen aholku eta txostenek ez dute eskari horiek egingo dituzten pertsonen daturik jasoko, arazoa konpontzeko datu horiek ematea beharrezkoa denean salbu eta, betiere, aurretik konfidentzialtasuna gordetzea exijitu ez bada.

Edozelan ere, hala eskatuko denean, kontsulta, dilema, arazoa, kexa edo salaketa eragingo duen pertsona edo entitatearen konfidentzialtasuna bermatuko da.

## X. KONTUAK EMATEA ETA EBALUAZIOA

Gutxienez urtean behin, bai aurrez aurre bai modu telematikoan, egindako kudeaketaren berri emango die Udalak legazpiar herritarrei.

Udalak Erakundearen Zuzentasun Politiken ebaluazio sistemak sustatuko ditu. Bertan, horretan espezializatutako kanpo erakundeetako kideek zein entitateek hartuko dute parte, epe homogeneotan zehar, azpiegitura etikoen garapen maila eta balioen zein jokabide arauen betetze maila

## IX. DETERMINACION DE CANALES Y PROCEDIMIENTOS

El Ayuntamiento de Legazpi establecerá los canales de comunicación mediante los que se puedan tramitar las consultas, problemas y dilemas en una primera fase y quejas o denuncias en una segunda fase, en relación con los valores, principios, normas de conducta y de actuación, establecidos en el presente Sistema de Integridad Institucional.

Preferentemente esos procedimientos, canales o cauces de consulta, se vehicularán por medios electrónicos, sin menoscabo de otras vías.

Las recomendaciones e informes que dicte la Comisión Etica no recogerán datos personales de quienes formulen tales solicitudes, salvo que por necesidad de resolver el asunto se hayan de incluir y siempre que no se haya exigido con carácter previo el mantenimiento de la confidencialidad.

En todo caso, cuando así se solicite, se garantizará la confidencialidad de la persona o entidad que promueva la consulta, dilema, problema, queja o denuncia.

## X. RENDICION DE CUENTAS Y EVALUACION

Con frecuencia mínima anual, sea de forma presencial o telemática, el Ayuntamiento, rendirá cuentas de la gestión realizada ante la ciudadanía legazpiarra.

El Ayuntamiento promoverá sistemas de evaluación de las Políticas de Integridad Institucional en los que participen actores institucionales externos y entidades especializadas en tales cometidos, al efecto que determinen el grado de desarrollo de las infraestructuras éticas, el cumplimiento de los

2017-11-29ko Udalbatzarrean
BETIKOZ onartuta.
LEGAZPIKO UDALA
IDAZKARIA

zehazteko.

valores y de las normas de conducta durante períodos homogéneos.

**XI. ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMAREN BERRIKUSPENA**

Kontu emate eta ebaluazio prozesuei jarraiki, eta Etika Batzordearen proposamenen arabera, beharrezkoa izanez gero, Udalak Erakundearen Zuzentasun Sistema berrikusi eta eguneratuko du; halaber, Erabaki honen edukia egokituko du, hau onartu eta hiru urtean behin.

**XI. REVISION DEL SISTEMA DE INTEGRIDAD INSTITUCIONAL**

De acuerdo con los procesos de rendición de cuentas y de evaluación, así como de conformidad con las propuestas de la Comisión Ética, el Ayuntamiento revisará y actualizará en caso de ser necesario el Sistema de Integridad Institucional adecuará el contenido del presente Acuerdo cada tres años desde su aprobación